

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a / 603. zenbakia



BERGARA KRISIAN

Ligako sailkapeneko
azken tokian



URTEAGA: LANAK ATZERATU DITUZTE/5 • MENDIA: UNAI PEREZ DE AREAZA SHISHA PANGMAN/9

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 29
ESTELLA. Matxiategi 5 ... 943 76 19 63

ZAPATUA, 30
MOZOS. Iparragirre 2... 943 76 12 15

DOMEKA, 31
MOZOS. Iparragirre 2... 943 76 12 15

ASTELEHENA, 1
CAMACHO. Oxirondo 4. ... 943 76 11 74

MARTITZENA, 2
ZABALA. Barrenkalea 25. ... 943 76 16 87

EGUAZTENA, 3
GUALLAR. San Antonio 5. ... 943 76 11 05

EGUENA, 4
ESTELLA. Matxiategi 5 ... 943 76 19 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Anbulatorioa (txanda) ... 943 03 54 00
Bergarako Udaltzaingoa ... 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa ... 943 76 62 46
Ertzaintza ... 943 53 47 20
Osasun etxea ... 943 76 24 40
Asepeyo ... 943 76 16 43
Pakea ... 943 76 13 49
Angiozarko medikua ... 943 78 90 27
Antzuolako medikua ... 943 76 62 23
Odol emaleak ... 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

GARRIAK
Taxiak ... 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46
Udal Artxiboa ... 943 77 91 32
Igerilekuak ... 943 76 20 51
Kultura etxea ... 943 77 91 58
Liburutegia ... 943 77 91 62
Kiroldegia ... 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia ... 943 76 14 92
Erregistroa ... 943 76 13 15
Jardun ... 943 76 36 61
Idolaz ... 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea ... 943 76 26 85
Bedelkar ... 943 76 04 68
Akulu AEK ... 943 76 05 18
Udal Euskaltegia ... 943 76 44 53
Bergarako notariotza ... 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro Domekak: 09:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Labegarieta Domekak: 11:00. San Lorenzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 11:00.
Santa Marina Zapatuak: 19:00. Domekak: 13:00.	Moja Zaharrak Lanegunak: 08:00. Mizpirualde Domekak: 11:45. Zapatuak: 17:30.
Sierbak Lanegunak: 19:30	Antzuola Domekak: 10:00, 11:30.
Osintxu Domekak: 12:00.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Elosu Domekak: 11:00.	Uzarraga Domekak: 10:00.
Ubera Domekak: 10:30.	Elgeta Lanegunak: 09:00.
San Juan Domekak: 11:00.	Zapatuak: 19:30.
Elorregi Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 13:00etan.
San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean.

OHARRAK

1945EAN JAIOTAKOEN AFARIA
1945ean jaiotako enafaria azaroaren 6an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1940AN JAIOTAKOEN AFARIA
1940an jaiotako enafaria azaroaren 6an, Pertxa elkartean. Joaterik ez dutenek abisua eman behar dute: 943 76 31 12.

1930EAN JAIOTAKOAK
1930ean jaiotako enafaria azaroaren 13an, Zumelagan. Aurretik Espolioan elkartuko dira, 14:00etan. Izenematea 943 76 22 22 edo 943 76 15 88 telefonoetan.

1938AN JAIOTAKOAK
1938an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Pertxan. Izenematea: 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edo 943 76 18 64 (Miguel Lazkano).

1953AN JAIOTAKOEN AFARIA
1953an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Txarrantxa jatetxean. Izenematea (15 euro aurrez) Txarrantxan, Kiñun edo ONCeren kioskoan (Tasio).

1943AN JAIOTAKOEN AFARIA
1943an jaiotako enafaria azaroaren 13an, Azpeitxi jatetxean. Izenematea 943 76 22 90 (Maher), 943 76 16 13 (Zubieta denda) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez) telefonoetan.

1933KOEN BAZKARIA
1933an jaiotako enafaria azaroaren 14an, Zumelagan. Izenematea (6 euro) Intxor-ta tabernan.

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947an jaiotako enafaria azaroaren 20an, Tartufo jatetxean, 21:00etan. Izenematea Euskadiko Kutxan.

1946AN JAIOTAKOEN AFARIA
1946an jaiotako enafaria azaroaren 27an, Tartufo jatetxean. Izenematea bertan: 943 76 35 51.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorenzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolioa (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.


ORAINDELA 10URTEBERGARAN

Seminarioko agiri ondarea babesteko akordioa

Udalak eta Euskal Herriaren Adis-kideen Elkartek (EHAE) Seminarioko Agiri Ondarearen kontserbazio eta difusiorako hitzarmena sinatu zuten 1994ko azaroan. Udalak 750.000 pezeta eta EHAEk 500.000 eman zituzten, eta ondarearen kontrol, kontserbazio eta promoziorako batzordea eratu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Restau entzuten da gehiago. —Ezetz erreztatu neri sakia.

JON IRAEGI

ASTEKOPELIKULAK

'HORAS DE LUZ'

ZUZENDARIA: MANOLO MATJI. **AKTOREAK:** ALBERTO SAN JUAN, EMMA SUAREZ, JOSE ANGEL EGIDO.

HARIA. Donostiako Zinemaldian aurkeztutako filma. Urtetako kartzela zigorra jaso duen preso baten eta haren zaintzaileetako baten arteko harremana azaltzen zaigu.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:30ean; astelehenean, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTAZIOA: ●●●●●

'HELLBOY'

ZUZENDARIA: GUILLERMO DEL TORO. **AKTOREAK:** RON PERLMAN, SELMA BLAIR.

HARIA. Komikietako Hellboy pertsonaia zinemara eraman du Guillermo Del Torok. Infernutik etorritako Hellboy izaki bitxia da eta ongiaren alde borrokatzen dihar-du orain...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan eta 19:30ean; domekan, 17:00etan; astelehenean 17:00etan; martitzenean 19:30ean (ik. eguna).

PUNTAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA
Martitzena, 26 **10 °C**

MAXIMOA
Eguaztana, 20 **28 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
3,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztana, 20	28 °C	18 °C	0,2 l/m ²
Eguena, 21	27 °C	15 °C	0,8 l/m ²
Egubakoitza, 22	24 °C	12 °C	- l/m ²
Zapatua, 23	27 °C	12 °C	- l/m ²
Domeka, 24	27 °C	14 °C	- l/m ²
Astelehena, 25	26 °C	11 °C	- l/m ²
Martitzena, 26	16 °C	10 °C	2,4 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Arteakalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate **BERGARA** Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D **ELGOIBAR** Tel.: 943 74 44 67

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu puntu bidezko gida-baimena ipintzea?



PAQUI MOLINA
40 urte




GURUTZ GALLASTEGI
58 urte



JAIONE BLAZQUEZ
27 urte



MARIAN ZUBIZARRETA
42 urte



JOSE RAMON SEBAL
54 urte



JOSE LUIS LARRAÑAGA
43 urte

Zenbait kasutan egokia, jendeak mugak daudela jakin arren ez duelako kasurik egiten. Beste askotan kontratu gabe egiten ditugu gauzak autoan, eta puntuak kentzea gehiegizkoa da.

Abiadura muga gaindituz edo mozkortuta gidatzen dutenei puntuak kentzea ongi iruditzen zait. Beste kasu batzuetan gehiegizkoa da, edonork egin baitezake hutsegite txiki bat.

Jende asko gidabaimenik gabe geldituko dela uste dut. Izan ere, ez da erraza hartutako ohitura txarrak egun batetik bestera aldatzea. Hala ere, nahiko neurri gogorak dira.

Arazoa konpontzeko balitz ongi, bestela alferrik. Arauak haustek beste bati eragiten badio puntuak kentzea ongi dago, baina, esaterako, gerrikorik ez janztea norberaren erabakia da.

Legea berbera da, aldatzen dena zigorra da, gogorragoa da. Zigor horiek gehiegizkoak dira. Jendea kontu handiagoarekin ibiliko da, zigor horiek jasotzeko beldurra izango duelako.

Arazoa konpondu beharra dago, baina hau ez dakit modurik egokiena den. Arau batzuk gehiegizkoak dira. Alkohol tasa, esaterako, oso txikia onartzen dute.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK SAN JOXEPEKO ERRETIRATUEI Herritar batek San Xosepe elkartearen erretiratuak txalotu nahi ditu zortzigarren urtez hamabostaldi kulturala antolatzen duten lanarengatik. Hitzaldi interesgarriak ekarri dituztela esan digu, eta aisiadira beste hainbat konturekin ere erretiratuak izan dutela gozatzeko aukera. Kontzertua, bertsolariak, xakea, dantzak, txangoa... Denetarik izan da. /I.A.

ASTEKO DATUA

12

HILABETE URTEAGA ITXI ZUTELA

Bergararik Antzuolarako bide zaharra itxi zuten 2003ko azaroan, Eskusarte harrobian lerradurak izan ostean. Lanak urrian hasiko zirela agindu zuten, baina atzeratu egin dituzte.

BESTEKEKESANA

“Euskarazko antzerkiak produkzio kopuru duin eta egonkorra lortzeko dirua falta du euskarazko kulturak bezala. Mezenasak behar ditu. Gauzak zaintzeko, gauzak ondo egiteko, dirua behar da. Emanaldiak eskaintzeko aukera eduki behar da, noski. Herrietan ere jarrera erakutsi behar da antzerkia ikustera joateko, antzerki emanaldiak antolatzeko. Leku batzuetan ongi funtzionatu izan du; herri handiak izan gabe, antzerkia beren herrietara eramateko apustua egin dute eta esperientzia ona izan da. Erakundeei, antzerkiari eta euskarazko kulturari duten garrantzia eman diezaioten eskatuko nieke. Gizartea eratzeko hezkuntza eta kultura oinarrikoak dira; antzerkiak, hor; esparru polita jokatzeko”
MIREIA GABILONDO / Aktore eta zuzendaria 'Berria' / 04-10-22

BERAIEKDIÑOE/ Iñigo Iñurrategi



Globalizhaizea

Aurreko egun baten globalizazioa eta kultura aukerei buruzko txosten baten Mahatma Gandhirekin topo egin, bere zita batek atentzioa eman eta, esanahia mantenduz, nire modura itzultzeko atrebentzia hartu nuen:

“Ez nuke aterik gabe eta leihoak beti itxita dituen etxe batean bizi nahi. Mundu guztiko kulturen haizeak arnastu nahi nituzke nire etxean; ez dut onartuko, ordea, hauetako edozeinek ito nazan”.

Gure etxeak leiho zabalak ditu eta gustatu edo ez, etxea etxe izan dugunetik sartu dira haize arrotzak gurean, batzutan sotilki, beste batzutan harro-harro, egunotako hego haizea legetxe.

Azken urteotan, gainera, haizeen haize deritzona iritsi zaigu: globalizazioa. Iritsi bakarrik ez, aterik jo gabe barruraino sartu da.

Gurean, baina, ez zaigu egundaino surik itzali, haizeak haize. Gizaldiak bata bestearen

atzetik berotu eta argitu ditu eta ez genuke nahi sua mantentzea guri dagokigun honetan itzaltzerik.

Leihoak zabalik eta sugarra bizi, biak batera mantendu: erronka polita, gure erronka.

Bidea ez, baina norabidea soma daiteke: aukera askatasunerantzkoa.

Alperrik ariko gara leihoak ixten, globalizhaizeok gogor datoz.

Gai izan behar dugu aukera askatasuna landu eta askatasun horretatik gure

ondorengoez gure kultura eta tradizioak aukera ditzaten baldintzak sortu eta indartzeko.

Gu gara protagonista. Gure eskutan dago. Erronka zaila da, eta apustua latza: milaka urtetako ondarea eta mundua ulertzeko modu bat, gurea, dago jokoan.

Ez naiz ni apustuak galdu zalea: badut federik Marik oraindik urte askoan egingo duena Aizkorritik Anbotorako bidea haizeak haize.

“Azken urteotan haizeen haizea iritsi zaigu: globalizazioa. Aterik jo gabe barruraino sartu da”

ETABARRUAN...

<p>ASTEKO / 5</p> <p>Aspace: egoitza berria</p> <p>Aspacek hezkuntza bereziko zentroak egoitza berria ireki berri du Oxirondo plazan.</p>	<p>KIROLA / 8</p> <p>Igor Gordobil elkarrizketa</p> <p>Preferente mailako futbol taldeak ez du ligan oraindik partidurik irabazi.</p>	<p>KULTURA / 12</p> <p>Kontzertuak asteburuan</p> <p>The Scientist eta The Drones taldeak gaur Jamen. Domekan, berriz, Fangoria-ren kontzertua.</p>
--	--	--

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Iratí Agirreazaldegí
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberebizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

OSOKO BILKURA/ Aritzeta auzoan argiteria jartzea eta rock taldeek goiko estazioko eraikina erabiltzen jarraitzea onartu zuen udalbatzak

Bergara Aurrerak hainbat gai planteatu zizkion alkateari asteleheneko udalbatzan


EDU MENDIBIL

Udalbatzak, besteak beste, Aritzeta auzoan, Zuburrutitik Launtzaratz arte, argiteria publikoa jartzea eta rock taldeek goiko estazioko eraikina erabiltzen jarraitzeko kontratua luzatzea onartu zuen asteleheneko ohiko bilkuran.

Musika taldeekin Udalak duen kontratua irailaren 29an bukatu zen. Hori dela eta, goiko estazioko eraikineko lanak hasi bitartean, kontratua beste sei hilabeterako luzatu diete taldeei. Lanak hasten direnerako taldeei beste lokalen batzuk uzteko aukera aztertzen dihardu Udalak. Bestalde, Aritzeta auzoan argiteria jartzeak 21.170 euro inguruko aurrekontua izango du.

EZTABAIDA GALDEREN TXANDAN

Erregu eta galderen txandan, Bergara Aurrerako kideen eta alkatearen arteko eztabaida izan zen. Bergara Aurrerako kideek euren eskubideak zapalduta jarraitzen dutela gogoratu zuten eta Andoingo udaletxean gertatutakoaren gainean galdetu zioten gobernuari. Gallastegi alkateak Andoainean gertatutakoa komunikabideen bitartez jarraitu zuela esan zien. Bestalde, Bergara Aurrerako Mikel Egurennek aurreko aste-ko plenoaren berri prentsaren bitartez izan zutela esan zion alka-



Besteak beste, herrian egiten diharduten lanak eztabaidarako gaia izan zen asteleheneko osoko bilkuran.

teari. Zaborraren eta uraren tasarekin harriritu zirela adierazi zuen Egurennek. Alkateak zera erantzun zion: "Prezioak Mankomunitateak finkatutakoak dira eta uraren prezioa gero eta garestiago izango dela argi izan behar dugu".

Egurennek Udalbiltzaren mozio bat asteleheneko udalbatzara eraman ez izana ere leporatu zion alkateari. Alkateak gai horiek dagozkion organoetan aztertuko direla erantzun zuen.

Dantzalekun izandako suteari dagokionez, alkateak arrazoia eman zion BAKo Jesus Mari Garitanori. Lan hori egiteko gertatuta ez dauden arren, sutea itzaltzen udal brigadako langileak aritu zirela salatu zuen Garitanok.


Herrian egiten diharduten lanen planifikazioa eta batzordeen ordutegia ere kritikatu zuen BAK. Aurretik batzordekideek adostutako ordutegira egokitu beharko direla erantzun zien alkateak BAKo kideei.

'Bergara Udal Aldizkaria' kaleratuko du Udalak

E.M.

Bergara Udal Aldizkaria izenburuko hiru hilabetekaria kaleratuko du Udalak. Arrasateko Verbax enpresari adjudikatu dio Udalak aldizkariaren proiektua. Lehen zerbakia egunotan banatuko da, doan, kioskoetan eta prentsa saltzen den bestelako tokietan, okindegietan esaterako.

Iñaki Azkoaga Verbaxeko arduradunak azaldu digunez, eztabaida politikotik kanpo gertatu da aldizkaria: "Udalak eskuartearen dituen proiektuen gaineko informazioa zabaldu nahi da aldizkarian. Udalak egiten diharduten lanak eta aztertzen ari diren proiektuak izango dira aztergai, besteak beste. Aldizkariak 16 orrialde izango ditu eta gai nagusi bat jorratuko da zenbaki bakoitzean. Era berean, alkatearen editoriala eta beste zenbait berri joango dira. Azken orrial-



Besteak beste, Agorringo kirolgunea izango da aztergai lehenbiziko zenbakian.

dean, berriz, herriko auzoei egingo diegu tartea".

Lehenbiziko zenbakian Agorringo kirolguneko proiektua eta Osintxu auzoaren egoeraren

berri emango dute. 4.000 ale kaleratuko dituzte eta, esan bezala, doan banatuko da. *Bergara Udal Aldizkaria*-en hurrengo zenbakia Gabonetarako argitaratuko dute.

LABUR

Taloak egiten ikasteko aukera azaroaren 19an Arrizuriagan, Jardunen eskutik

Jardunek taloak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du. Arrasateko Ekin Emakumeen Elkarteak kideek emango dute ikastaroa, azaroaren 19an, Arrizuriaga jauregian, 17:00etatik 20:00etara. Jarduneko bazkideek sei euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek zortzi. Izenematea Jardunen, Errotalde jauregian.

Komite Internazionalistak taldearen kartel erakusketa Nahikarin, astelehenera arte

25 urte Komite Internazionalistekin lelopean, Komiteek 1979tik hona kaleratutako kartelak ikusgai daude Nahikari tabernan, Masterrrekan. Erakusketa astelehenera arte izango da zabalik. Komiteek egindako lana eta kartelen eboluzioa nolakoa izan den ezagutzeko aitzakia ederra da erakusketa.

Gaixo psikikoen familiarrei zuzendutako taldeak abian jarri ditu Agifes elkarteak

Debagoieneko Agifes elkarteak aditzera eman duenez, gaixo psikikoen familiarrei zuzendutako taldeak hamabostean behingo martitzenetik elkartuko dira, Bergarako Errotalde jauregian, 10:00etatik 11:00etara eta Irizar jauregian 19:00etatik 20:00ak bitartean. Era berean, hileroko azken eguaztenean, arratsaldean, familiarrei zuzendutako zerbitzua egongo da Irizar jauregian. Edozein argibidetakoa 943 76 98 56 telefonora jo dezakezue.

HEZKUNTZA/ Ibaiondo pasealekuko egoitza ere zabalik edukiko dute, zentroan hasteko eskaerei aurre egiteko


Aspace hezkuntza bereziko zentroak egoitza berria ireki du Oxirondo plazan

EDU MENDIBIL

Aspacek Oxirondo plazako egoitza berria zabaldu berri du. Ibaiondoko lokala txikia geratu zitzaion, eta Oxirondo-koan lanean dira joan den astea ezker. Hala ere, bi lokalak zabalik edukiko dituzte, itxaron zerrendan hainbat lagun dira-eta.

Marga Martinez Bergarako Aspaceko arduradunak esan digunez, Ibaiondoko lokala zabalik edukiko dute. Orain, berritze lanak egingo dituzte Ibaiondo pasealekuko 9. zenbakiko lokalean eta azaroaren bukaera aldera, Aspaceko 17 lagun Oxirondoko lokalean geratuko dira eta beste 15 lagun Ibaiondon egongo dira. Lokal bakoitzean lau monitoren jardungo dute.

Gaur egun 18 urtetik gorako 26 lagun daude Aspaceko egoitzan, baina hainbat lagun daukate itxaron zerrendan. Esan bezala, beste sei lagun hasiko dira datoren asteotan Bergarako bi egoitzetan. Dagoeneko 27 urte dira Aspaceko egoitza Bergaran zabaldu zutenetik. Orduan gaztetxoentzako zentroa ireki zuten Seminarioan,



Joan den astea ezker lanean dira Aspaceko Oxirondoko lokal berrian.

eta 1989an helduen egoitza jarri zuten abian, Ibaiondo pasealekuan. Dagoeneko 15 urte egin dituzte hantxe.

OTARREGINTZA PRODUKTUAK
Debabarreneko eta Debagoieneko gutxitu psikikoak biltzen ditu Bergarako egoitzak. Euren zere-

gin nagusietako bat otarregintza lanak egitea da. Produktuok Estatu osoko Eroski dendetara zabalteko ahaleginetan ari dira.

LABUR

Elikadurarekin loturiko nahasteak aztergai

Elikadurarekin loturiko nahasteen prebentzioaren gaineko ikastaroa izango da azaroaren 6an kultura etxean, 10:30etik 12:30era. Besteak beste, anorexia eta bulimia kasuak prebenitzeko metodoak izango dira aztergai.

Gazte eta nerabeekin aisialdian lan egiten duten astialdiko, kiroltako, eta beste hainbat jardueretako begiraleei zuzenduta dago eta matrikula doanekoa da. Argibideak Udaleko Ongizate Zerbitzuan: 943 77 91 24.

Erretiratuen kultur hamabostaldiaren amaiera

Antzuolako eta Bergarako erretiratuek antolatutako kultur hamabostaldia bukatuko da bihar, zapatua.

Tartufo jatetxean bazkaria izango da 14:30ean. Bazkalostean, dantzaldia eta oparien zozketa egongo dira.

Bazkarira joan nahi dutenek erretiratuen egoitzan eman dezakete izena. Argibideak 943 76 30 09 zenbakian.

Urteagako lanen hasiera abendura arte atzeratu dute

E.M.

Urriaren hastekoak ziren Urteaga kaleko lanen abendura arte atzeratu dituzte. Esleipen prozesuak atzeratu du, hain zuzen, lanen hasiera. Azaroan urtebete beteko da Bergararik Antzuolara joateko errepide zaharra itxita dagoela.

Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ondoren itxi zuten errepidea, eta Urteaga kaleko itxierarengatik kaltetutako enpresa eta partikularrek mobilizazioak egin zituzten uztailan, lanen atzeratzea zela-eta. Bergararik Antzuolara joan-etorria egiteko ekialdeko saihebidia erabili behar izaten dute gidariek.

LANAK, BI FASETAN

Diputazioako Bide Azpiegiturarako Departamentuko iturrien arabera, arazoa konpontzeko lanak bi faseetan egingo dira: lehenbizikoan, trenbide zaharreko ibilbidea eusteko lanak egingo dira. Lehen fase hori 2005eko ekainean bukatzea espero du Diputazioak.

Bigarren faseak mendi-mazolari eustea du helburu. Lursaila-



Antzuolarako errepide zaharra 2003ko azaroa ezker dago itxita.

ren ezaugarriak direla eta, zailtasun handiko lana da. 2005eko abendurako lanak amaitzea da Diputazioaren asmoa. Lanen aurrekontua lau milioi euro da.

Beraz, 2005. urtean ere itxita egongo da Urteaga kalea. Auzotarrek, inguruan enpresak dituztenek eta Antzuolara joan-etorria egin behar dutenek hase-

rra azaldu dute azken hilabeteotan. Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ostean, arazoa geldirik egon zen, ez zegoelako argi nor egin behar zen lanen kargu. Azkenean, Diputazioak lanak bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuen udaberrian. Hala ere, lanak ez dira abendura arte hasiko.



Udal Euskaltegiko zozketako irabazlea

Udal Euskaltegiak ikasturteko matrikula zozketatu berri du ikasleen artean eta saria Alejandro Campos mexikarrari tokatu zaio. Beraz, ikasturteko matrikula doan atera zaio Alejandro. Veracruzkoa da bera, eta Bergarara etorri berri da bizitzatera. Euskaltegian, lehen mailan dihardu. Argazkian, Alejandro Campos saria jasotzen Kontxi Umerez Udal Euskaltegiko irakaslearen eskutik.

Zabala jatetxea: diamantezko ezteiak

EDU MENDIBIL

Astelehenean, azaroaren 1ean, 75 urte beteko dira Zabala jatetxea ireki zutenetik. Zabalarren laugarren belaunaldia errelebu hartzeko gertu dago dagoeneko. Bien bitartean, jatetxearen historia azaldu digu Antxoni Suinagak.

Agarre baserriko Asuncion Iñarra eta Martin Zabala senar-emazteek ireki zuten Zabala jatetxea, 1929ko azaroaren 1ean. Martinek eta Asuncionek sei seme-alaba izan zituzten eta jatetxea zabaldu aurretik Juanita eta Pilar alabek Gaspar jatetxean ziharduten lanean. Hain zuzen ere, Gaspar da herriko jatetxerik zaharrena gaur, 1904an zabaldu baitzuten.

HIRU BELAUNALDI

Beraz, Zabala-Iñarra familiak ekin zion jatetxea aurrera ateratzeari. Hasieran jangela eraikineko lehen pisuan zegoen eta Martin hil ondoren, korta zegoen lekuan kokatu zuten jangela. Martin eta Asuncion 40 eguneko tartean hil ziren, 1939ko udaberrian, eta haien seme-alabek jarraitu zuten negozioarekin. Bezeroak irabazi ahala, Zabala jatetxea handituz joan zen; horrela, 1958. urtean 120 bat lagunen dako jangela inauguratu zuten. Labegaraietako eliza zabaldu zuten orduan eta gotzaina etorri zenez, hark bedeinkatu zuen Zabala jangela ere. 1961ean, berriz, sei logela dituen ostua jarri zuten abian.

Antxoni Suinaga eta Rafael Zabala 1947ko abenduan ezkondu ziren eta Antxoni ordutik dabil jatetxean lanean. Senarra 1976an hil zitzaion. Beraien seme-alabe-

tako bat, Rafael, jatetxeko sukaldaria da. Eta laugarren belaunaldia lekukoa hartzeko gertu dago, Mikel bilobak ofizioa ikasten dihardu-eta.

1960KO HAMARKADAKO HAZKUNDEA

Antxonik gogoratzen duenez, 1960ko hamarkadatik aurrera lan ikaragarria egin zuten: "Sasoi hartan, inguruan, Arantzazuko hospederian zegoen gurearen tamainako jangela, baina han ez zuten lagatzen musika jartzen. Beraz, ezkontza asko izaten genituen, eta agur-bazkariak ere bai. Domeka eguerditan ospatzen ziren agur-bazkariak orduan". Antxonik txikitatik ezagutu du tabernari lana, bere gurasoek Paldai taberna (Aiskar izenarekin ezagutzen zutena) izan baitzuten Artekalen. 80 urterekin, oraindik berak irekitzen du egu-



Zabala jatetxeko langileak. Astelehenean, azaroaren 1ean, Zabala zabaldu zuteneko 75. urteurrena beteko da.

nero taberna, 07:00etan: "Bezeroak ondo baino hobeto ezagutzen ditut eta eskatu beharrik ez dute, badakit bakoitzak zer nahi duen eta. 10:00ak arte-edo egoten naiz tabernan, gustura gainera".

Bergarako saihebidia egin zutenean, kalte handia egin zieten dio Antxonik. Hala ere, orain momentu onean direla diosku: "Ekialdeko saihebidetako eta Eibar-Gasteiz autobidetako lane-

kin topera ibili gara aspaldian". Astelehenean, hilaren 1ean, Zabalar denak elkartuko dira Arantzazun, 75. urteurrena ospatzeko. Familiartean ospatzeko moduko eguna. Zorionak!





San Martingoak, baserri eskolan

San Martin eskolako lehen eta bigarren mailako ikasleek Bizkaiko Baratze baserri eskolan egonaldia egin zuten urriaren 18tik 20ra bitartean.


Irakasleekin batera, 80 ikasle izan ziren Gauegiz-Arteagan, eta baserrian egiten den bizimodua eta lana gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Egunaldia lagun, jolasak eta irteerak ere egin zituzten. Argazkian, San Martingo gaztetxoak Baratze baserri eskolan.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK: Matxiategi 3 • 943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio-espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobeagoa den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

ELKARRIZKETA

IGOR GORDOBIL/BERGARAKO FUTBOL TALDE NAGUSIKO ENTRENATZAILEA

"Ez gara sailkapenak erakusten duen bezain txarrak, aterako gara zulotik"

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako futbol taldea sailkapeneko azken tokian dago. Igor Gordobil eta Andoni Azkargortaren mutilek ez dute oraindik partidurik irabazi. Gordobilen iritziak jaso ditugu.

Arrazoirik badago horren liga hasiera txarra izateko?

Bai, orain arteko partiduetan behin eta berriz akatsak errepikatu ditugula, gaztetxoek egiten dituzten akatsak. Ez dugu gure jokoa egiterik izan: lerroen arteko distantziak ez ditugu behar bezala zaintzen, urduri ibili gara, inolako orden barik... Partiduen hasieran nahiko ondo moldatu gara, baina berehala behera etorri gara. Aurreko zapatuan, 15. minuturako, Oiartzun 2-0 zen aurretik. Eta horrela zaila da. Eskerrak gutxienez berdinketa lortu genuela... Egia esateko, merezi dugu gauden tokian egotea eta gogor egin beharko dugu egoera honi buelta emateko. Taldeak nortasuna erakutsi behar du

horrelakoetan. Ez gara sailkapenak erakusten duen bezain txarrak, eta zulotik ateratzeko konfiantza daukat.

Liga hasi aurretik zenituen helburuak aldatu egingo ziren...

Partiduz partidu taldea noraino irits zitekeen ikustea zen hasierako asmoa, baina gauzak okertu egin zaizkigu. Hala ere, ez da normala oraindik partidurik irabazteke egotea. Lehenbailehen partiduren bat irabaztea komeni zaigu, konfiantza pixka bat hartzeko. Datozen hiruzpalau partiduak erabakigarriak izango dira. Nerbioei eustea ez da erraza, baina erronka bat dugu gure aurrean eta jokalariek, zaleek, zuzendaritzak eta entrenatzaileok bat egin behar dugu.

"Oraindik puntu asko daude jokoan, eta datozen partiduak garrantzi handikoak dira"

Liga hasi baino lehen konforme zinen osatutako taldearekin?

Aldaketa asko egon dira taldean, garrantzitsuak ziren hainbat jokalarik taldea utzi zutelako eta gazte dezente etorri direlako. Fitxaketa bakarra egin dugu, Ekain Garin arrasatearra. Defentsarako errefortzu batzuk ere etortzeko ziren, baina ez zen ezer gauzatu eta daukagunarekin egin behar dugu aurre, ez dago besterik.

Zure entrenatzaile postua kolokan ikusi duzu?

Ez, zuzendaritzaren partetik ez dut inolako presiorik sumatu, eta eskertzekoa da. Oraindik puntu asko daude jokoan eta datozen partiduak garrantzi handikoak dira guretzako.

Zapatuan Zubietan jokatu duzue, UPV-EHUren aurka.

Realaren taldea da UPV-EHU eta ez da erraza izango han punturik lortzea. Iaz Realeko gazte taldean ibilitako jokalariek dira gehienak, eta hirugarren tokian daude. Ligako talde indartsuenetakoa den arren, ea partidu ona egiterik daukagun...



ARTIBOIA

Azoka txikirako bigarren eskuko materiala jasoko dute Pol-Polen

E.M.

Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta, eski eta mendi materialaren azoka txikia zabalduko dute azaroaren 22tik 27ra bitartean. Aurreko urteotan moduan, bigarren eskuko materiala erosteko aukera izango da.

Pol-Polekoek datorren astean ekingo diote materiala biltzeari. Horrela, materiala salgai jarri dutenek Pol-Poleko bulegora er-

man beharko dute azaroaren 8tik 18ra. Astelehenetik eguenera 19:00etatik 20:30era bitartean jasoko dute materiala Pol-Poleko bulegoan. Argibideak 943 76 48 51 telefonoan jaso daitezke.


Esan bezala, bigarren eskuko materiala jarriko dute salgai. Zerbaiten bila dabilenari topatzeko aukera eskaintzen dio azoka txikiak: botak, granpoiak, pioletak, eskiak, txamarrak, iltzeak, mosketoak eta horrelakoak egongo

dira. Aurreko urteotan erantzun ona jaso du azoka txikiak.

LIZENTZIAK ETA BETERANOEN IRTEERA

Eski denboraldiari begira, eski lizentzia egiteko aukera dago Pol-Polen, aste barruan 19:00etatik 20:30era.

Bestalde, Pol-Poleko beteranoek urteko azken irteera iragarri dute azaroaren 22rako. Lizarraga eta Urdiain aldera egun osoko irteera egingo dute.



ARTIBOIA

Material bilketa azaroaren 8tik 18ra egingo dute.

Jose M. Martínpinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialaErrekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA*Sukalde eta bainu enzimarak*Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77 **Giartzu**
KIROL ELKARTEA**Tai-Chi
eta Chi Kung
eskolak ematen dira
(txinatar gimnasia
tradizionala)**Ostegun eta ostiraletan
16:00-17:00Boni Laskurain 3 behea
Tel.: 943 76 35 71 20570 BERGARA**Samadhi
Yoga**• ERLAXAZIO IKASTAROA
Erlaxatzen ikasteko Schultz eta Jacobsonen metodoak.**Ostiraletan: 20:15etik 21:15era
Hasiera: azaroaren 5ean**

Masterreka 13, behea • Tel.: 639 23 57 53 / 943 76 11 38

MENDIA

Unai Perez de Arenazak bide berria ireki du Shisha Pangma mendian

Oriol Varo kataluniarrak eta Unai Shisha Pangmako ipar aurpegian zabaldu dute bidea

Katalunian bizi den Unai Perez de Arenaza bergararrak eta Oriol Varok Vall de Boi izeneko korridorea ireki dute Shisha Pangman, Himalaian. Mila metro inguruko korridorea da, eta zuzen-zuzenean erdiko gailurrera irteten dena.

Unai Perez de Arenaza bergararrak 29 urte ditu eta Katalunian, Lleidan bizi da azken urteotan. Hain zuzen ere, berak eta Oriol Varok Vall de Boiko Udalaren babesarekin egin zuten espedizioa, eta hori dela eta herriaren izenarekin bataiatu zuten irekitako bide berria. Esan bezala, Shisha Pangmako (8.013 m) ipar aurpegian egin gabe zegoen korridore bat zabaldu zuten. Mila metro inguruko korridorea da, zuzen-zuzenean erdiko gailurrera irteten dena eta 60-70 gradu bitarteko malda etengabea duena. Oriol Varok eta Unai Perez de Arenazak joan den irailaren 27an ireki zuten bide berri hori.



Argazkian, Shisha Pangma mendia, Himalaian.

ARTXIBOA

*Unai eta Oriol
euskaldun espedizio
batekin elkartu ziren
Shisha Pangman*

rrak, Ibon Azkune azpeitiarrak eta Jesus Mari Erratzu azpeitiarrak, hain zuzen. Beraiekin taldea osatzen zuten Xabier Ormazabalek eta Pedro Garciak, berriz, bide normaletik jo zuten gailurrera. Xabier Ormazabal urretxuarra handik egun batzuetara hil zen, Cho Oyutik jaisten.

Gazteendako aerobik eskolak antolatu ditu Kirol Zerbitzuak

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, 12-16 urte bitarteko gazteei zuzendutako aerobik ikastaroa izango da Ipintza institutuan. Eskolak astelehen eta eguazten arratsaldeetan izango dira.

Ipintza institutuko gimnasioan eskainiko da aerobik ikastaroa, azaroaren 2tik ekaina bitartean. Esan bezala, eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 20:00etara. Gehienez 18 ikaslek hartuko dute parte. Beraz, lehenbailehen komeni da izena ematea. Interesatuak Udaleko Kirol Zerbitzura edo 943 77 91 67 telefono zenbakira jo dezakete. Prezioari dagokionez, Kirol Zerbitzuko bazkideek 13 euro ordaindu beharko dituzte aerobik ikastaroan parte hartzearen eta bazkide ez direnek, berriz, 18,90 euro.

Azken urteotan nagusiendako aerobik eskolak izan badira ere, nobedadea da gazteei zuzendutako ikastaro hau. Udaleko Kirol Zerbitzuko arduradunen



Eskolak erakargarriak izaten ahaleginduko dira ikastaroan.

ARTXIBOA

asmoa gaztetxoaren artean aerobikerako zaletasuna piztea da. Horretarako, eskolak erakargarriak izaten ahaleginduko dira Nuriá Rodríguez eta Amaia Carrillo irakasleak. Ohiko ariketez gain, gorputz adierazpena eta dantza ere jorratuko dituzte ikastaroan.

IGERIKETA IKASTAROAK
Bestalde, Udaleko Kirol Zerbitzuak gogoratu duenez, igeriketa ikastaroak eskainiko dira Agorrosingo igerilekuan. Hainbat maila egongo dira, eta horren arabera finkatuko da ordutegia. Argibideak Kirol Zerbitzuan jaso daitezke.

TXIRRINDULARITZA

Bergarako txirrinduzaleen denboraldiko azken irteera domekan, Dorletara

Bergara Txirrindulari Elkarteko lagunek denboraldiko azken irteera egingo dute domekan, urriaren 31n. Dorletako Amabirjinari lore sorta eskainiko diote, eta denboraldia bukatutzat emango dute.

Irteera 09:00etan egingo dute San Martin plazatik eta bueltan luntxa izango dute Zuloa elkartearen.

ARGAZKILARITZA

Kirol Argazki Lehiaketako sari banaketa gaur eta erakusketa astelehenera arte zabalik

Kirol Argazki Lehiaketako sari banaketa egingo da gaur, egubakoitzea, kultura etxean, 20:00etan. Lehiaketara aurkeztutako lanik onenak kultura etxeko erakusketa aretoan izango dira ikusgai, azaroaren 1era arte. Aste bukaeran 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik erakustokia.

TENISA

Tenis eskolak izango dira Labegaraietako pistan, martitzenetan eta eguaztenetan

Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, tenis ikastaroa jarriko dute abian azaroan Labegaraietako pistan. Eskolak martitzen eta eguaztenetan izango dira, hasiera mailakoak 19:15etik 20:15era eta hobekuntza mailakoak 20:15etik 21:15era. Argibideak eta izenematea Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67.

FUTBOLA

Ohorezko mailako kadeteek eta nesken taldeak zapatuan jokatu dute, Ipintzan

Ohorezko kadete mailako futbol taldeak Lagun Onak hartuko dute zapatuan Ipintzan, 10:00etan. Ondoren, nesken senior mailako taldeak, berriz, Agurain izango du bisitari, 12:00etan.

Preferente mailako taldeak UPV-EHU taldeari bisita egingo dio zapatu arrataldean, Realak Lasarten duen Zubietako zelaietan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: K. Piperrak-Canalejas. Kalaveras

10:30: Kalaveras-PDS. K. Piperrak

16:00: Errotagain-Brescia. Bayer

17:00: Agirrebeña-Bayer. Brescia

18:00: Ganbara-Niu Tim. Agirrebeña

ASTELEHENA, BARRUAN

09:30: Txipiron-Ganbara. Belengua

10:30: Belengua-Niu Tim. Txipiron

18:00: Fit Automocion-Arrano. Mongatxur.

19:00: Agirrebeña-Mongatxurak. Arrano

Sonia
ile apaindegia
Rastak eta makillajea

Azaroaren 2an
zabalik



Artzamendi 1, behea • Tel.: 943 76 56 85



Urte bukaera arteko harpidetza.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.



BEILATOKIA
ETENGABEKO ZERBITZUA
LORE KOROAK
ESKELAK
TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 39. alia

IEPA LAGUNOK!

Hementxe naukazue aste honetan be zuekin jolasian egitteko gertu. Asteburu honetan hiru egun jai edukiko dituzue! Ze ondo! Ondo pasatu eta asko jolastu lagunekin! Gogoratu datorren astian lehiaketa tokatzen dala. Ordurarte, ondo izan!



JOLASA

“Ehiztarixa eta galeperrak!”

Partaidetako batek (ehiztarixak) 20ttik behera kontauko dau banan-banan begixak itxita. Bittartian beste jokalarixak ezkutau egingo dira (galeperrak). Ehiztarixa O-ra aillegautakuan galeperrak harrapatzen saiatuko da. Baten bat ikustean dabenian, kontatzen egon dan tokira juan eta bi formula erabilli ahal izango ditu: “Mikel/Nerea/Ainara/... ikusi zaittut” edo “Mikel/Nerea/Ainara/... zapo”. Ehiztarixak galeper danak harrapatzen dittuanian, harrapautako lehenengo galeperra izango da ehiztari berrixa.



ESAERA ZAHARRAK

- | | |
|------------------------------|---------------------------------------|
| 1 Etxeko sua... | A ... eta ondo esanak goguan hartu. |
| 2 Eskola umiak sasiz sasi... | B ... etxeko hautsez estali bihar da. |
| 3 Osasuna... | D ... nahi ez bada huts egin. |
| 4 Gaizki esanak barkatu... | E ... munduko ondasuna. |
| 5 Ez gehixegi berba egin... | F ... asko jan eta gutxi ikasi. |

URREZKO ARAUAK

- Mikel! Ikusi zaittut! !
- Eskolara juan bihar ez naizenez...
- Mikel! Ikusi detsut!
- Eskolara juan bihar ez naizen...



INKESTIA

• Zer urtaro dozu gustokoen?



MARTIN ASPIAZU
7 urte

Udia gustatzen jat gehixen neri. Eskolara juan bihar ez naizenez, gustatzen jaten gauzak egitteko denboria edukitzen dot: piszinara juan, plaiian baiñatu, mendira ixo eta bizikletan ibilli.



XABIER ASPIAZU
5 urte

Urtarorik polittena udia da. Piszinara eta plaiara juaten naizelako gustatzen jat. Baloiak jolasten naiz eta oso ondo ibiltzen naiz. Gaiñera, eguraldi ona egitten dau.



MIKEL LARRAÑAGA
5 urte

Urtaro danetatik udia aukeratuko neuke. Zarautzera juaten naiz oporrak pasatzera. Bertan plaiia dagonez, aurten surfa egitten ikasi dot. Asko gustau jat eta tablia be erosi dot.

ZUZENKETIA

37. alian fruten balixuetan marrubixarena okarra zan. Ondorengo balixuak dira zuzenak.




= 6



= 1



= 2



= 3



= 4

MUSIKA/ Domekan Fangoria taldearen kontzertua izango da

The Scientist eta The Drones talde australiarren emanaldia gaur Jam aretoan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak Udazken Kulturalako ekitaldien barruan kontzertua antolatu du gaurko, egubakoitza. Jam aretoan izango da The Scientist eta The Drones Australiako rock taldeen emanaldia. Bestalde, domekan Fangoria taldeak ere jardungo du Jam aretoan.

Gaur, egubakoitza, rock kontzertua izango da Jam aretoan Udalak antolatuta.

Udazken Kulturalako ekitaldien barruan The Scientist eta The Drones talde australiarrek jardungo dute gauean. Jam aretoan ateak 22:00etan zabalduko dituzte.

Ramones eta New York Dolls taldeetan oinarrituta Australiako Perth hiriko lehen punk taldea sortu zuen Kim Salmonek 1976an, The Cheap Nasties, hain zuzen ere. Bi urte geroago musikari horrek berak The Scientist sortu zuen.

Frantic Romantic lehen lana kaleratu eta arrakasta handia lortu zuten *underground* zirkuituetan. Orduetik hona euren soinua gordindu eta alderdi ilunagoak arakatu zituzten.

The Scientists taldeak bai soinu eta baita jarreraren ere rock-and-rollaren benetako esentzia harrapatu zuen gero.

Taldea hainbat aldiz banatu zen eta partaideetan aldaketa asko egin zituzten. Euren disko batzuk berrargitaratu zituzten eta Perth-en kontzertu bat emateko hainbat taldekide elkartu ziren. Kontzertu bakarra izan zen hura, baina gerora zuzeneko emanaldi batzuk ere eskaini dituzte. Bergarako kontzertu horietako bat izango da.

Taula gainean Kim Salmon, Stu Thomas eta Leanne Chock izango dira, gitarra, baxua eta bateriarekin hurrenez hurren

AUSTRALIATIK THE DRONES

The Scientist taldearekin batera Australiako The Drones taldea ere izango da gaur Jamen.

Rock musika egiten du laukote horrek, baina oso rock iluna eta gordina da euren. Australian oso entzutetsuak dira talde horren doinuak eta bertako adituen esanetan, Australiak azken urteotan rock arloan eman duen talderik onenetarikoa da.

Kontzerturako sarrerak Jam aretoan bertan erosi ahal izango dira 15 euroren truke.



The Scientist taldeko hiru lagunak The Dronesekin (argazkian) batera izango dira Jamen.

FANGORIA DOMEKAN

Bestalde, astelehena jaieguna izanik, domekarako Halloween jaia antolatu dute Jamen.

Fangoriarena izango da emanaldi nagusia. Alaska eta Nacho Canuten taldeak musika elektronikoa egiten du pop melodiarekin.

Fangoriarekin batera jai horretan DJak eta beste hainbat ikuskizun ere izango dira, 22:00etan hasita.

Maria Urtzelai 'Kaputen kanta' antzerkiko protagonistetako bat

I.A.

Antzerkiola Imaginarioak asteen aurkeztu du Bilbon *Kaputen kanta* formatu txikiko lan berria. Taldean gertatu dute heriotzaren gaian oinarritutako antzezlana, baina taula gainean bi aktore agertuko dira, Mirian K. Martxante eta Maria Urtzelai bergararra.

Kaputen kanta lanean, Antzerkiola Imaginarioak aurrez beste lan batzuetan egin duen bezala, heriotzaren gaia agertzen da. "Heriotzari egindako kanta metaforikoa da; beste batzuei ekiteko gauza batzuk amaitu behar direla adierazten du", esan digu Maria Urtzelai antzerkiko protagonista bergararra.

Ritos, gure azken lur zatia kale antzerkian hasi zen Maria Antzerkiola Imaginarioa taldearekin, eta orduetik hona beste hainbat antzezlana egin ditu.

MUSIKALA

Kaputen kanta antzerki lan musikala da. Antzerkiola Imaginarioko sortzaileetako bat da Aitor



Maria Urtzelai Mirian K. Martxante izango du lagun taula gainean.

Agiriano musikaria; beraz, garrantzi handia eman diote musikari. "Taula gainean abesteko eta dantza egiteko gogoia genuen, eta lan honek aukera hori eman digu. Heriotza sinbolikoaren hileta ospatzen dugu jai giroan, eta gaiak

serioa dirudien arren, antzezlana umore girokoa da.

Lutxanan, Beran eta Ondaroen ere izango dira, baina oraindik gainontzeko emanaldiak ez dituzte zehaztu eta ez dakite Bergaran aurkeztuko duten lana.

LABUR

Punk eta oi! kontzertua bihar gauean gaztetxean hiru euskal talderen eskutik

Kalekumeak, Ardi Galduak eta Enboskada taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, gaztetxean 22:30ean. Sarrerak hiru euro balio du. Kalekumeak taldea Añorgakoa da, beste biak, Arrasatekoak. Punk eta oi! doinuak eskainiko dituzte.

Bergarak Euskal herriko trenbide sarean izandako lekua hizpide martitzenean

Euskal Herriko trenbide sarean Bergarak izandako lekua izango dute mintzagai datorren martitzenean 19:30ean Migel Altuna ikasketeko aretoan. Carlos Larrinaga Rodriguezek *Bergara, historia topagunia* hitzaldi sortan gai horren gainean jardungo du.

Luis Laskurainen lanak ikusgai Gasteizko Iradier 9 aretoan azaroaren 2ra arte

Luis Laskurainen olioak azaroaren 2ra arte Gasteizko Iradier 9 aretoan erakusketan ikusi ahal izango dira. Zapatuan, astelehenean eta martitzenean egongo da zabalik 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Laskurainen lanetan natura hilak dira nagusi eta margolanetan botilak, fruituak... ikus daitezke.

Gay eta lesbianen mugimenduaren gaineko argazkiak ikusgai kultura etxean

Gehitu Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Kolektiboaren eskutik, bere mugimenduaren gaineko argazki erakusketak egongo da kultura etxean. Azaroaren 3an zabaldu eta 14ra arte egongo da ikuskerako aukera. Astegunetan 18:00etatik 21:00etara; eta zapatua eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

E.TXO!

EGUTEGIA DISEINATZEKO LEHIAKETA ABIAN

Bergarako Gazte Informazio Guneko 2005eko egutegia diseinatzeko lehiaketa egingo dute. Bergaran ikasi, lan egin edo bizi diren 15 eta 30 urte bitarteko gazteek har dezakete parte lehiaketan. Lanak kolore eta teknika librean eginak izango dira, baina bertan, *Bergarako Gazte Informazio Gunea* testua idaztea ezinbestekoa da. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Lanak azaroaren 20ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira kultura etxean.

ANOREXIA ETA BULIMIARI BURUZKO IKASTAROA

Bergarako Udaleko Ongizate Zerbitzuak anorexia eta bulimia detektatzeari eta haien prebentzioari buruzko ikastaroa antolatu du. Gazte eta nerabeekin aisialdian lan egiten duten hezitzaileei eta begiraleei zuzendutako ikastaroa izango da. Azaroaren 6an, goizez, izango da ikastaroa kultura etxean. Izena eman nahi dutenek honako telefonora deitu beharko dute: 943 77 91 24.

TXIKILANDIARRAKO BEGIRALEAK BEHAR DIRA

Arrasateko AED euskara elkarteko Txatxilipurdi taldeak begiraleak behar ditu Gabonetarako. Izan ere, haur parkea ipini ohi dute Gabonetan Musakolan. Bertan lan egiteko baldintza nagusiak dira euskaraz jakitea eta 18 urte beteta izatea. Beraz, Gabonetan umeekin lan egin nahi dutenei dei egin diete izena emateko, 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 telefonora deituta. Eskaera egiteko azken eguna azaroaren 26a izango da.

GUREGAIK/ MUSIKAGIDA EGITASMOA

Euskal Herriko musika talde gazteen gida

IRATI AGIRREAZALDEGI

Euskal Herriko musika talde gazteen datuak gida baten jasotzeko asmoz, Musikagida egitasmoa ipini du abian Gaztesareak. Liburuxka batean bildu eta Durangoko Azokan aurkezteko asmoa dute.

Gaztesareak, euskal musika talde gazteak sustatzeko asmoz, Musikagida egitasmoa ipini du abian.


Euskal Herrian musika talde gazte asko dago, baina gehienak ez ditugu ezagutzen. Kontzertuak eskaintzeko toki ugari ere bada, baina askotan betiko taldeetara jotzen da, talde berriak bazterrean lagata. Gainera, ez da jakiten talde horiek nola aurkitu.

Gidaren helburua da musika talde gazteak —*maketero* izendatzen direnak, diskoetxe alternatiboekin soilik editatzen dutenak eta diskorik inoiz argitaratu ez dutenak— liburuxka batean bildu eta gero beraiekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea.

DURANGOKO AZOKAN

Aurtengo Durangoko Azokan liburuxka bat aurkeztu nahi dute talde horien guztien datuekin. Horretarako, Gaztesareak deialdi publiko egin die musika talde guztiei gida horretan izena emateko.

Musikagida egitasmoari buruzko argibide gehiago nahi duenak 943 59 35 88 telefonora dei dezake.



Gaztesareak aurtengo Durangoko Azokan aurkeztu nahi du Musikagida.

ARTXIBOA

LOTSABARIK/ Izarne Medina

“Nire akatsa da puntuala ez izatea”

I.A.

Ez omen da inora esandako orduan iristen Izarne, eta gurera ere pixka bat berandu heldu zen. Hala ere, egindako galderak lasai erantzun ditu dantza soltean abila den Athleticzale honek.

- **Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?**
Gazteondako ekintza gehiago ipiniko nituzke. Baita lokal gehiago eta merkeagoak ere.
- **Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?**
Athleticeko ezkutua.
- **Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?**

Gran Hermano eta antzerakoak ez zaizkit gustatzen. Gogokoen dudana *Aqui no hay quien viva* telesaila da.


- **Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?**
Telebistako saioetan euren burua saltzera joaten direnak gorroto ditut. Unax Ugalde, berriz, asko gustatzen zait.
- **Zerk amorratzen zaitu?**
Jendeak laguntzarik ez ematea behar duenari.
- **Zer estimatzen duzu besteengan?**
Eskuzabaltasuna.
- **Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?**
Familiari, lagunei eta ikasketei.

- **Zure bertute bat? Eta akats bat?**
Alaia eta eskuzabala naiz. Baina badut akats bat: ez naiz bate-re puntuala.
- **Zelan ligatzen duzue gazteok?**
Jaietan, giroak lagunduta.
- **Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?**
Lagun ona, niri eta besteei laguntzeko prest dagoena eta barrea eragingo didana.
- **Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?**
Lagunekin, Karibeko hondartzaren batera.
- **Etorkizunerako amets bat?**
Familia osatzea, lana edukitzea eta betiere lagunak inguruan ditudala bizitzea.



ADINA: 14 urte • **IKASKETAK:** DBH 4 • **ZALETASUNAK:** Dantza soltea, futbola eta lagunekin ibiltzea • **LIBURU BAT:** *El último trabajo del señor luna* • **FILM BAT:** *Mortadelo y Filemón* • **MUSIKA TALDEA:** Ken 7 • **KIROL TALDEA:** Athletic

TIRABIRAKA/ Oihan Vega



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEEZIBAR

Sarreran irakur daitekeenaren arabera, XIX. mendeko ze urtetan eraiki zuten kanposantua?

BERGARAROSPETSUAK

Juana Asbaje (1)

KOLDO PEREIRA

Literaturan eta komentuko bizitzan Sor Juana Ines Gurutzekoa deitzen zioten poeta eta prosalari euskaldun-mexikar hari, eta *Mexikoko Fenixa* ere bai. San Miguel de Neplantan, Mexikon, jaio zen, 1651n. Pedro Manuel Asbaje zuen aita, sortzez bergararra eta Isabel Ramirez ama, Hernan Cortesen lehen emaztearen ondorengoa.

Latina, Erretorika eta Filosofia ikasi zituen bere osaba Pedro Jose Olivas apaizarekin. Leonor Castro erreginaordearen dama izan zen. Jauregian ikasten aritzen zen, eta unibertsitateko 40 irakaslek eta hainbat teologo, filosofo, humanista eta matematikaririk jendaurreko azterketa egin zioten fakultate guztietako gaiez. Harri eta zur geratu ziren, Juanak izugarritzko jakituria zuela ikusi baitzuten.

Bere dohain bikainak, bere edertasun, gaztetasun eta iaiotasun poetikoa eta gortean zuen lekua zirela-eta, ustez etorkizuna izan behar zuen. Baina, hala ere, monasterioko bizimodua aukeratu, eta 1667an karmeldar oinutsen San Jose komentuan sartu zen.


Sor Juana Ines Gurutzekoa deitzen zioten poeta euskaldun-mexikar hari



ARTIBIDA

GALDEDEBALDE

1. Zein urtetan zabaldu zuten Aspaceko egoitza Bergaran?
A/ 1980an.
B/ 1977an.
C/ 1973an.
2. Zein menditan ireki du bide berria Unai Perez de Arenaza bergararrak?
A/ Shisha Pagma.
B/ Cho Oyu.
C/ Aconcagua.
3. Zein da Maria Urtzelaik parte hartzen duen azken antzeziana?
A/ Tearto.
B/ Kaputen kanta.
C/ Ritos, gure azken lur zatia.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSE MARI AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jose Mari!
Galderen erantzunak: Bonofotoa: Bidekurutzetan / Galde debalde: 1-C, 2-B, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Nocilla krema

Zapore bat edo bi, hiru ontziko packa, 210 g.

3,19 €

506 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Idoia Iriarte Irureta

Dentista

Artekale 1 - 1C Bergara Tel.: 943 76 01 65

• Odontologia orokorra

• Asegurua: LAGUN-ARO

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Arrolako mendizaleak Urbian, 1983an

Zenbat antzuolar joan ote dira, Arrola Mendizale Elkartearekin, Euskal Herriko eta hemendik kanpoko mendietara. Urte asko daromatza Arrola elkarteak irteerak antolatzen.

Horietako ibilaldi baten ateratako argazkia dakarkizuegu oraingo asteen. Urbia aldera egindako mendi ibilaldian, hain zuzen ere, atera zuten honako argazkia. Orain dela 21 urteko argazkia da, eta badirudi Urbiako fondaren aurrean daudela mendizaleak; atsedean hartu eta hamarretakoa egiteko tokia da fonda mendizaleendako. Horixe egingo zuten, seguruen, antzuolar mendizale hauek ere.

Hona hemen argazkian azaltzen diren mendizaleen izenak:

Behean, eserita, ezkerretik eskumara: Janire Jauregi, Aitzol Jauregi, Arkaitz Kortabarria, Beñat Aiastui, Jon Kortabarria eta Jesus Azkarate.

Atzerago, makurtuta, ezkerretik hasita, honako hauek ikus ditzakegu: Josefi-
na Irizar, Santi Aiastui, Julian Iparragire eta Migel Angel Bargiela.

Atzean, zutik, ezkerretik eskumara: Juan Jose Agirre, Santi Aristi, Angelita Aranburu, Luis Mari Jauregi, Felix Iar-tza (atzean), Salvador Olabarria, Jose Ramon Jauregi, Joxe Lizarralde, Joxe Agirrezabal, Jose Mari Gabilondo eta Maxi-mo Aristi.

Argazkia: Xalba Olabarria



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



EL CARMEN

GARBIKETA
ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Azaroaren 1ean
diamantezko ezteiak
ospatzen ditugu.

Eskerrik asko herritar guztioi!

Labegarieta, Ibarra 14 BERGARA • Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

AGIRREBEÑA

JATETXEA

- Kintadak
- Eguneko menuak
- Asteburuko menu bereziak

Igandetan itxita

Ibarra 2, Labegarieta. Tel.: 943 76 21 45.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko urriaren 29a / 220. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Aihertar eta antzuolar nekazariak elkarrekin

AINZANE IRIZAR

Tomas Larrañaga antzuolarra denok ezagutzen dugu. Nekazaritza ekologikoa praktikatzen dutenen Ekonekazaritza elkarteko presidentea da. Michel Dunate aihertarra, berriz, BLE elkarteko kidea da. Harreman estua dute bi baserritarrok.

Michel Dunate aihertarra artzaina dugu. Abeltzaintza ekologikoa praktikatzen du Michelek, eta Iparraldeko BLE (Biharko Lurra- ren Elkartea) elkarteko kidea da.

Tomas Larrañaga antzuolarra, berriz, Ekonekazaritza elkarteko presidentea da. Momentu honetan, Interreg proiektuan dihardute lanean Ekonekazaritzak, BLEk eta Biolurrek elkar-lanean. Horrelaxe azaldu digute proiektu hori zertan den: "proiektu honen helburua da belardi ekologikoak, hazi ekologikoak eta eskoletako jantokietan elikagai ekologikoen erabilpena bultzatzea eta komertzializazioari begira elkarrekin lan egitea".

Aihertar eta antzuolarren arteko harremana, hortaz, hainbat mailatan ematen da, eta hori-



Michel Dunate artzaina (bizarduna) gazta saltzen, 1997ko San Isidro azokan.

xe da urteurreneko ospakizunak antolatu dituen batzordeko kideen helburua; hots, herri bietako elkarteen eta biztanleen harremana bultzatzea, maila guztie-

tan. Orain dela zazpi urteko San Isidro azokan, esaterako, baserritarrek elkar ezagutzeko aukera izan zuten, aihertarrak Antzuolara gonbidatu zituzten-eta.

Edukiontzia, gainezka

Aurreko asteko egubakoitzean, hilak 22, ez ziren pasatu Antzuolatik zabor biltzaileak. Gauzak horrela, asteburuan, domekan, batez ere, herriko edukiontzia gainezka zuden, horrek dakarren guztiarekin. Itxura eskasa zuten edukiontzi inguruek, eta usain txarra zegoen. Edukiontzia bete eta zaborra kanpoan lagatzen hasi behar izan zuen jendeak. Hainbat herritarrek helarazi digu bere kexa gertaera honen aurrean, eta horrelakorik gehiago ez gertatzea eskatu./A.I.

AIHERRA-ANTZUOLA

Lasterkaldia gaur hasiko da Aiherran

A.I.

Gaur, egubakoitza, hasiko da Lasterkaldia Aiherran, 20:00etan. Aurretik, 18:00etan, txalapartarien, joaldunen eta herriko eskolako umeen kantu emanaldia izango dugu. 19:30ean, berriz, Antzuola eta Aiherraren arteko senidetzearen sinatze ekitaldi ofiziala egingo dute herri bietako udal ordezkariak.

LEKUKOAK 150 KILOMETRO EGINGO DITU
Esan bezala, gaur 20:00etan abiatuko da Lasterkaldia Aiherratik. Joseba Gastiainek egindako lekukoak bi herriak batzen dituen 150 kilometroak egingo ditu.

Lehendabiziko kilometroan, Juan Antonio Iturbe antzuolarrak eta Aiherrako ume batek

eramango dute lekukoak; azkeneko kilometroan, berriz, Andre Martinon aihertarrak eta Antzuolako hainbat umeak. Andre eta Juan Antonio ditugu orain dela 20 urte herri bien arteko harremana hasi zuteneko batzuk eta harreman hori mantendu dutenak.

Lekukoak idatzi bat ekarriko du barruan; Nelly Challet aihertarrak irakurriko du idatzi hori, Antzuolan, Lasterkaldia amaitzen denean.

Bestalde, aipatzekoa da Aiherrako eta Antzuolako berben hitz-tegi txiki bat egin dutela antolatzaileek; zapatu goizean jolas bat egingo dute plazan, hiztegiarekin lotuta.

Azkenik, gogoratu behar dugu urteurreneko kamisetak salgai egingo direla bihar, plazan.

LABUR

Olalde elkarteak antolatutako Herriko Pilota Txapelketa azaroaren 6an hasiko da

Hamaika bikotek jardungo dute norgehiagoka Olalde elkarteak antolatutako Herriko Eskuz Binakako Pilota Txapelketan. Azaroaren 6an hasi eta abenduan, Gabon jaiak aurretik, bukatuko da txapelketa hori. Zapatu goizero lau partidu jokatuko dituzte, Udal Pilotalekuan. Txapelketa bi mailatan antolatu izan duten arren, aurten Olalde elkarteko arduradunek erabaki dute maila bakarra jartzea.

Gazteguneko gaztetxoek txartelak salduko dituzte ekintzetarako dirua ateratzeko

Oraingo asteburuan hasita, Gazteguneko neska-mutikoez txartelak saltzen jardungo dute; bi lagunendako afari bat zozkatuko dute, eta abenduaren 18an egingo dute zozketa. Hogeita gaztetxo ibiliko dira boletoak saltzen. Zozketa horrekin, euren helburua da dirua ateratzea, Gaztegunean hainbat ekintza antolatu ahal izateko.

Infantil mailako pilotariak aurreko astean ekin zioten Gipuzkoako Txapelketari

Olalde elkarteko nagusiek eta kadete mailako pilotariak irailean hasi zuten Gipuzkoako Klubaren Arteko Txapelketa. Infantil mailakoek, baina, ez diote txapelketari ekin aurreko asteburuan arte. Ondo hasi dute, gainera, denboraldia; 18 eta 8 irabazi zuten, Aretxabaletako bikotearen aurka. Jon Iturbek, Ibai Zabalok eta Markel Letek dihardute Olaldeko infantilen mailan.



ANTZERKIA

Umeendako 'Hitzak patriketan' antzezlana izango dugu domekan

ANTZANE IRIZAR

Domekan, hilak 31, *Hitzak patriketan* antzezlana eskainiko du Txalo taldeak, Udalak antolatuta. Arratsaldeko seietan izango da hori, Olanan etxeko aretoan. Hiru eta bederatzirte bitarteko umeei zuzenduta dago Txalok dakar-kigun ikuskizuna.

Magiaz betetako ikuskizuna eka-rriko digu Txalo Produkzioak taldeak domeka arratsaldean. Etxeko txikienei zuzenduta dago *Hitzak patriketan* antzezlana, hiru eta bederatzirte bitarteko neska-mutikoei, hain zuzen ere. Inaki Beraetxe eta Aizpea Goenaga aktoreek jardungo dute emaldi horretan.

Barbara Labezomorroa, Agustina Oiloa eta Pepa dira antzezlanean kontatzen den istorioaren protagonistak.

Hiru ataletan banatutako dago ikuskizuna; lehen atala *Izenak* deitzen da, eta Barbara Labezomorroa izango da protagonista. Barbara konturatzen da bere izaera ez datorrela bat bere ize-




Barbara Labezomorroa, Agustin Oiloa eta Pepa dira antzezlanean protagonistak.

narekin, eta ahalegin guztiak egingo ditu hori lortzeko.

Zenbakiak izenekoa da antzezlanean bigarren atala. Agustin Oiloa da protagonista eta zenbakiak hainbat arazo dituela ikusiko dugu.

Hirugarren atalaren izenburua da *Koloreak*; atal horretan, Pepa dugu protagonista; neskato horri margotzea gustatzen zaio. Pepe bere lehengusuak badaki margotzen, baina, ez dio Pepari margotzen irakatsi nahi.



Ping-pong txapelketa Gaztegunean

Aurreko asteko zapatuan hasi zuten Gazteguneko ping-pong txapelketa. Ping-pong mahaia zutela aprobetxatuta, gaztetxok eurek proposatu eta antolatu dute txapelketa hori, eta sekulako arrakasta izan du; guztira, 21 bikotek eman du izena, eta datozen asteotan jokatuko dituzte partiduak. Bikote bakoitzak euro bat jarri du txapelketan parte hartu ahal izateko; guztien artean batutako dirua, txapelketan lehendabiziko hiru postuetan sailkatzen diren bikoteen artean banatuko dute./A.I.

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain · Dendaria

Antzuolan harrera beroa

Geroago eta ulergaitzagoa egiten zait, etxebizitzak sekula baino garestiago ordaintzen diren garai hauetan, beti etxetik kanpo ibili nahi izatea, idazten zuten Sustrai Colinak orain dela gutxi, Pilarikako zubian, kanpora oporretan irten zen jendearen gainean.

Bestalde, Leongo lagun batek Euskal Herrian hamar egun oporretan egin eta gero idatzi digu eta hauxe esan digu: "fui realmente feliz entre bosques, paseos, montañas y personas. De verdad, os considero privilegiados de vivir donde vivís".

Egia esan, askotan entzun eta esan izan dut "bertan baino hobeto inon ez da bizitzen". Orduan... zergatik irteteko afan hori? Zeren bila gabiltza?

Erantzun asko egongo dira, baina batu daitezke orain modan dagoen esaldi baten "bizitza kalitate hobea" ... eta, egia esan, zer da ba bizitza-kalitatea? Gauza asko sar daitezkeela uste dut, baina, batik bat "giza kalitatea"



"Ospakizunetan giza sentimendu hunkigarriak piztuko dira"

azpimarratu nahiko nuke gaurkoan: lagun giroa, elkartasuna, elkarri entzutea, harrera beroa, eta abar; eta honetaz ikasteko eta ikusteko, antzuolarrak, zorionez, ez daukagu inora joan beharrik, bizi-bizi daude gure artean eta. Ikusi besterik ez dago, ostiral eta larunbat honetan ere izango ditugun ekitaldiak: Aiherra-Antzuola, senidetzearen 20. urtemugako ospakizunak.

Hori aurrera ateratzeko, bi herrietan talde eta pertsona asko, oso desberdinak, dabilta buru-belarri lanean. Eta, azken finean, bi egun horien inguruan giza sentimendu hunkigarriak piztuko dira eta gure herrian bizi izatearen harrotasuna sentituko dugu; eta, bide batez, gure eta gure inguruko bizitza-kalitatea hobetzeko urratsak ematen jarraituko dugu.

Eta hori lorpen handia da individualismoa nagusitzen ari den gizarte honetan; hortaz, ea aurrerantzean ere harrera beroa egiten diegun Antzuolara etortzen direnei.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Urriak 30
16:30: Antzuola-Zestoa (Erregionalak)
Urriak 31
12:00: Antzuola-Zestoa (Kadeteak)

PILOTA
Azaroak 1
11:30: Antzuola A-Antzuola B (Benj.)
12:00: Olalde-Beloki (eskuz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA
Lagun Onak B 2 Antzuola 0 (Erreg.)
Antzuola 8 Eibartarrak B 1 (Gazt.)
Eibartarrak 3 Antzuola 3 (Kadeteak)
Antzuola 0 Elgoibar 4 (Neskek)

PILOTA
Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.
Aretxabaleta-Olalde (eskuz nag.) 17-22
Olalde-Aretxabaleta (eskuz inf.) 18-8

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta
industriarako pinturak
Paper margotuak
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

AITZ-GARBI
taberna
jattetxea
Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak
Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**MUJIKA
HARATEGIA**

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko urriaren 29a / 204. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Urtarrilaren amaierarako gertu pilotalekua berritzeko proiektua

IRATI AGIRREAZALDEGI


Udal Pilotalekua berritzeko dagoen beharra ikusita, proiektua prestatzeko eskaria egin nahi du Udalak. Proiektua egin nahi duten hautagaiek eman dute izena, eta azaroaren hasieran egokiena aukeratu ostean, hark urtarrilerako gertu izan beharko du.

Udal Pilotalekuaren egoera nahiko kaskarra da, batik bat teilatuarena, eta behin eta berriz hitz egin da herrian frontoia konpontzeko beharraz.

Hori dela eta, aurtengo udal aurrekontuetan, berritze proiektua egiteko diru kopuru bat zehaztu zuten.

Udalak hiru arkitektoari eman zien proiektua egin nahi izanez gero euren eskariak aurkezteko aukera. Jadanik jaso dituzte eskariak, eta orain, Gobernu batzordean erabaki behar dute udal ordezkariak zein proposamen den egokiena.

Ondoren, aukeratutakoak hiru hilabete izango ditu proiektua bera gertatzeko. Beraz, urtarrilaren amaierarako eginda izatea espero dute Udalean.



Pilotalekuaren barruko aldean eta teilatuan egingo dituzte berrikuntza nagusiak.

BERRIKUNTZAK

Pilotalekua berritzeko lanen artean honako hauek aurreikusituzte: ezkerreko horma altxatzea, teilatu zaharra kendu eta

aldatzea, biltokia egokitzea, tabernaren eta frontoiaren arteko atea eserlekuen aldera mugitzea, lurra eta sarrerako atea aldatzea, eserleku batzuk kendu eta mugiko

rrak ipintzeko aukera aztertzea eta berogailu sistema aldatzea.

Horiek dira proiektua egiteko adituek kontuan hartu beharko dituzten aldaketak.

HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta • Irakaslea

'Bulling'-aren builak

Beti bezala, zerbait larria gertatu ondoren hasten gara gizakiok gauzak aldatu nahian. Ordura arte egoera aldatzeko aukera izan badugu ere, gizakiok ez dakit zergatik baina, gehienetan ez dugu ezer egin.

"Banekien gertatuko zela...", "Ikusia zegoen hori gertatuko zela...", "Nik aspaldi esan nuen..." bezalako esaldi hasierak ohiko bihurtzen dira. Eta beti bezala berandu izaten da, normalean heriotza batek hartzen digu aurrea. Atzera bueltarik ez duen heriotzak. Bere buruaz beste egin zuen Jokinen kasua dugu adibide.

Bere ikastetxean jasan zuen jazarpen edo *bulling*-ari egozten diogu errua. Orain bat-batean, heriotza bat medio guztion ahotan darabilkigun hitza.

Heriotza hau arazo honi errotik heltzeko ordainsaria izan da, garestia zoritxarrez. Orain hasiko gara neurriak hartzen, berriz ere berandu.

Eztabaidak hasiko dira, errua nire, ardura harena, bestearena... ez gara ados



"Gurasoek gero eta denbora gutxiago ematen dute seme-alabekin"

ipiniko. Zalaparta itzela dabilkigu inguruan. Batzuek irakasleei botatzen diote errua, beste batzuk ikasleei... baina ez dezagun ahaztu ikasle guztien atzetik gurasoak daudela.

Hor dago haur batek jaso behar duen hezkuntzaren zati handiena eta garrantzitsuena.

Baina zoritxarrez gizarte honetan gurasoek gero eta denbora gutxiago ematen dute beraien seme-alabekin.

Eta hori ikastetxeetan nabari da. Gurasoek ez dute ikastetxeen gain utzi behar heziketaren erantzukizun guztia, bi esparruen arteko elkarlan bat izan behar da.

Ikasle askok ez dizkiete mugak ipintzen beraien ekintzei, norbaitek gelditu behar ditu beraien asmoak. Muga horiek jartzea irakasle eta gurasoen arteko egin beharra da, baina ez ahaztu mugarik handiena ikasleei etxean gurasoek ezarritakoa izan behar dela. Izan ere, ikastetxeek eraiki dezaketen muga gurasoek eraiki dezaketen baina askoz laburragoa da.

LABUR

Goibekok ez du aurtengo bazkide kuota berria kobratuko

Goibeko elkarteak bazkideei jakinarazi nahi die aurtengo kuota ez dutela kobratuko. Hala ere, urtariletik aurrera 30 euro ordaindu beharko dituzte. Baina kuota hori berreskuratzeko aukera izango dute. Izan ere, datorren urtetik aurrera txartel bat edukiko dute eta horrekin deskontuak izango dituzte Espaloiko ekitaldietan. Txartela Espaloian bertan jaso beharko dute bazkideek.

Lau film azaroan Espaloiko zineklubean

Espaloiak aurrera jarraitzen du eguazteneroko zinema emanaldiekin. Urriaren lau film eman ostean, beste horrenbeste ikusteko aukera izango da azaroan ere. Saio guztiak eguaztetenetan 21:30ean izango dira. Azaroan barrena emanango dituzten filmak honako hauek dira: *Yo soy Sam*, *Big fish*, *Te doy mis ojos* eta *The Italian job*. Zinema-zaleendak, beraz, aukera polita.

PILOTA

BETERANOEN LAU T'ERDIKO ELGETAKO TXAPELKETA

URRIAK 29, BARIKUA

21:00: Iñaki Ugarteburu/Enrike Ruiz-Iñaki Izagirre/Javier Bolinaga

Ondoren, Pello Larrea/Joseba-Eduardo Zubiaurre/J.M. Zubiaurre

Gero, Alex Aranzabal/Alberto Telleria-Javier Otxoa/Mikel Elkoro

Ondoren, Asier Morales/F. Zenitagola-Jesus Belamendia/Errasti

Partidu guztiak Udal Pilotalekuan izango dira.

KULTURA

Senperena eta Agirreren antzerki musikatua gaur Espaloian

Ramon Agirre antzezleak eta Joserra Senperena musikariak hitza eta musika uztartzen dituen 7 gezur txiki ikuskizuna aurkeztuko dute gaur, barikua, Espaloian. Askotariko istorioak eta musikak jasoko dituzte bertaratutakoek bi artista horien eskutik.

Joserra Senperena pianoan eta Ramon Agirre mikrofonoarekin, antzerkia eta musika uztartuz gezurraren apologia egingo dute.


Ironiaren bidetik zenbait pertsonaia bitxiren pasadizoak kontatu eta kantatuko dituzte. Errutinak itotako saltzailea, sexu adiktoa den neska, telebistan eguraldia iragartzen duen aurkezlea eta pijo marka-zalea izango dira, besteak beste, pertsonaia.



Joserra Senperenak jardungo du pianoan eta Ramon Agirrek mikrofonoarekin.

Musikarekin batera, izenburuko zazpi zenbakiak eta gainontzekoek ere izango dute tarterik kontu eta kantuetan.

Antzerki musikatu hori ikusi eta entzun nahi dutenek Espaloira joan beharko dute gaur, barikua, 22.30ean.



Eskola Txikien Jairako jantzi berriak

Uda partean hainbat kamiseta saldu ostean, Eskola Txikien Jaia antolatzen diharduen taldeak negurako arropa ipiniko du salgai. Kamisetak eta jertseak ekarri dituzte, emakumezkoendako, gizonezkoendako eta umeendako. Azoketan ibiliko dira arropa horiek saltzen, eta Elgetan ere izango da erosteko aukerarik, dendaren baten eta baita kalean ere. /I.A.

EUSKARA

Etxejabeen komunitateetako agiriak idazteko argibide liburuxka banatuko dute atarietan

Debagoieneko udalek, Mankomunitatearekin batera, **Idatziak, etxejabeen komunitateetako agiriak** liburuxka kaleratu berri dute. **Idatziak** sortako bigarren da hau, hain zuzen ere. Herriko atari bakoitzean liburuxka bat banatuko du Udalak datorren astean. Bestalde, Udalaren webgunean ere eskuragarri dago liburuko edukia.

Iaz liburuxka bat kaleratu ostean, orain etxejabeen komunitateetako agirien bilduma argitaratu dute Debagoieneko udalek Mankomunitatearekin batera. Liburu horien helburua euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzea da, eta horretarako idatzi ereduak eskaintzen dituzte.

Eguneroko jardunean tresna erabilgarria izateko eta euskarari toki handiagoa egiteko ahalik eta modurik errazenean egin dituzte azalpenak liburuxketan.

Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuetatik esan dutenez, "eskaintzen dugun hizkuntza aholkularitza zerbitzuan, aurre-rapauso bat gehiago eman nahi dugu, eta beharrei erantzuteko idatzi sorta hau prestatu dugu".

EDUKIA

Liburuxkak jasotzen dituen gaien arten honakoak daude: bilera deiak eta aktak, bilerara joateko ordezkariak, jakinaraztekoak, ziurtagiriak, errekerimendua, balantze ekonomi-

koa, errotuluak, oharrak, araudiak eta hiztegia.

Elgetan atari bakoitzera liburuxka bana eramango dute eta etxejabeen komunitateetako arduradunaren postontzian utzi, haiek baitira liburuxka gehien erabiliko dutenak. Banaketa egiten datorren astean hasiko direla jakinarazi digute Udalean.

Bestalde, nahi duenak eskuragarri dauka liburuaren eduki guztia Udalaren www.elgeta.org helbidean.

LABUR

Legazpiko hiru talde gaur gauean gaztetxean

Gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean 22.30ean. Legazpiko hiru taldek jardungo dute: Mala Hierba, Hartu Arte eta Expansion taldeek. Mala Hierba sei lagunek osatzen dute eta punk-rock musika egiten dute saxoa doinuak ere sartuz. Hartu Arteko bost kideek punk-rocka egiten dute eta diskoa grabatzekotan dira. Expansioek, metal estiloan jarduten dute, SA eta Flitter taldeen ildoari jarraituz. Hasiak dira diskoa grabatzen.



DEBAGOIENeko I. MUSIKA LEHIAKETA

SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Mezuak bidaltzeko jarri:

DANBAKA (tarte) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.


















ILE APAINDEGIEN GIDA

OIHANA ETA PILI / IZARRA ILE APAINDEGIKOAK

'Urtero joaten gara Madril eta Bartzelonara orrazkera berriak nola egiten diren ikastera'

Zenbat urte daramatzazue orrazten?

"Ile apaindegia orain dela 30 urte zabaldu nuen, eta alaba Oihana duela bost urte hasi zen nirekin lanean".

Moda jarraitzaileak zarete?

Bai, modaren jarraitzaileak gara, gure lanerako ezinbestekoa da, beti jakin behar dugu zeintzuk diren azken tendentziak. Urtero joaten gara Madril eta Bartzelonara orrazkera berriak nola egiten diren ikastera. Oihanak masterra Bartzelonan egin zuen, Llonguerasen akademian; hark dioenez, Llongueras izan da fantasiazko orrazkerak sortu dituen, oso ikusgarriak omen dira Llonguerasen desfileak. Horretaz aparte, guk erabiltzen ditugun produktuak etxeek gala ugari antolatzen dituzte Donostian, eta bertara ere joaten gara.

Zer-nolako bezeroak dituzue?

Denetariko bezeroak ditugu, umeetatik hasi eta nagusietara bitartean. Gizonezkoak zein emakumezkoak.

Jendea ausarta da?

Bergaran jendea geroz eta ausartagoa da. Batez ere mutilak, haiek ere hasi direlako ilean kolorea ematen eta orrazkera ausartagoak egiten. Gure bezeroak gauza berriak egitera animatzen ditugu.

Jendeak zaintzen du ilea?

Orokorrean jendeak geroz eta garrantzi handiagoa ematen dio ilea osasuntsu edukitzeari, eta asko dira aholkua eskatzen digutenak. Adibidez, udazkena da ilea gehien jausten den urtaroa, eta horren aurkako tratamenduak egiten ditugu. Horretaz gain, ile lehorra eta zahia



Oihana eta Pili.

duten pertsonentzako tratamenduak egiten ditugu. Ondorengo etxeekin egiten dugu lan: L'oreal eta Schwarzkopf.

Bezeroei aholkuak ematen dizkiezue ala ideia garbiekin etortzen dira?

Denetariko bezeroak ditugu, batzuk oso ideia garbiekin etortzen dira eta beste batzuk, berriz, gure esku uzten dute orrazkera; norberaren aurpegiaren arabera orrazkera bat edo bestea egitea gomendatzen diegu. Modara joan nahi dutenak ere badaude, punta-puntako kolore eta orrazkerekin.

Zer da gehien egiten duzuen?

Momentu honetan kolorea da gehien egiten duguna, eta gero xerloak (ile batzuk beste kolore batez koloreztatzea). Azken urte hauetan koloreak indar asko hartu du, jendeak sarritan aldatzen du ilearen kolorea.

Ile apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzue?

Ile apaindegiaz gain dutxadun solariuma, hanketako eta biboteko depilazioa, manikura zerbitzua, ile-luzatzeak eta ezkontzetarako makillaje berezia dauzkagu.

IZARRA

San Pedro 23 - Bergara
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutzarekin

Aukera onenak

ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

AMPARO

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Boni Laskurain 2 - Bergara
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

BEROTZI

PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

disdira

ile apaindegia

Masterreka 7 - Bergara
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloretan

IDOIA

Espoloia 4 - Bergara
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

KIZKUR

Bolu 51 - Bergara
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

Ibargarai 42 - Bergara
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutzarekin

Pepelu

Zurradero 2 - Bergara
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Sanchez

Fraiskozuri 4 - Bergara
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozteak
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea